

1. Osasunaren zaintza eta prebentzia, nerabezarotik hasita

- **Antisorgailuen** inguruko **heziketa** eta informazioa, **eta haurdunaldiaren prebentzioa**.
- **Abortuaren** inguruko informazioa eta bideratzea.
- **Sexu transmisiozko** gaixotasunen inguruko informazioa.
- Haurdun geratu nahi izatekotan, **ernaldi aurretiko** informazioa.
- **Gernu-inkontinentziaren** inguruko informazioa eta prebentzioa (pelbis-zorua lantzea).
- **Menopausiaren** inguruko heziketa eta informazioa.
- Utero-lepoko minbiziaren antzemate goiztiarra eta saihestea (baginako **zitologia** hiru urtero sexu harremanak izan eta hiru urtetara).

2. Haurdunaldi eta erditze osteko arreta

- **Haurdunaldiaren kontrola** hasieratik.
- **Haurdunaldiari** lotutako **heziketa** (gorputzaren aldaketak, ariketak...) eta **erditzeko prestaketa**.
- **Erditze osteko jarraipena** anbulatorioan edo/eta bisita etxean.
- **Erditze ostea:** antisorgailuen inguruko informazioa, pelbis-zorua berrezartzeko ariketen inguruko informazioa eta haur masajea.
- **Edoskitze** (laktantzi) tailerra, barikuetan (ostiraletan) 12:30 -14:30
 - Haurdun dagoenarentzat.
 - Bularra ematen ari denarentzat.
 - Edoskitzearen inguruko edozein zalantza duenarentzat.
 - Esperientzia elkartrukatu eta ekarpena egin nahi duenarentzat.

3. Haurdunaldia Borondatez Eteteko (HBE, Abortatzeko) informazioa eta bideratzea

- **Emaginarekin kontaktuan** jarri, ez balego inguruko emagin batekin harremanetan jartzeko eskatu. Zuzeneko txanda hartu edo telefono bidezko txanda baliatu.
- Emaginak **argitu**ko dizkizu **zalantza** guztiak **eta prozesua hasiko** du:
 - Kartazal itxi bat emango dizu informazio ezberdinarekin.
 - 3 egunetara, telefonoz, emango dizkizute prozesuarekin jarraitzeko argibideak.
- **Konfidentzialtasuna** bermatzen da prozesu guztian zehar. Datuak ezabatzen dira eta historia klinikoan ez da arrastorik gertatzen.
- Legediaren baldintzak betetzen dituzten emakume guztiei osasun-sistema publikoak finantzatzeko die abortua, **doakoa** da.

Abortuaren Legea

Martxoaren 3ko 2/2010 Legeak emakume guztiei aitortzen die Haurdunaldiaren Borondatezko Etetea (HBE) egiteko eskubidea, betiere kasu hauetan egiten bada:

- Emakumeak eskatuta:

Haurdunaldiaren lehenengo 14 asteetan, eskaera baino ez da egin behar, amatasuneko laguntza publikoei eta eskubideei buruzko informazioa duen kartazal bat jaso, eta, gutxienez 3 egun igaro ondoren.

- Medikuak aholkatuta

16 eta 17 urteko emakumeen kasuan ere emakumeari dagokio adostasuna, baina agiri bat aurkeztu beharko du, Haurdunaldiaren Borondatezko Etetea, HBEa, egiteko asmoaren berri legezko ordezkariaren bati eman diola egiaztatze-ko. Gazteak medikuari alegatu diezaioke familian arazo larria, mehatxuak, derrigortzeak edo indarkeria sor litzakeela bere legezko ordezkariari jakinarazteak.

HBEa egiteko kasu guztietan, osasun-zentroak behartuta daude intimitatea eta datu pertsonalen konfidentzialtasuna bermatzera.

Legediaren baldintzak betetzen dituzten eta osasun-asistentzia publikorako eskubidea duten emakume guztiei osasun-sistema publikoak finantzatuko die HBE.

Gogoratu:

Azaldutako gaien inguruko edozein zalantza baduzu emaginarengana jo zuzeneko txandaren bidez edo telefonoko txanda eskatuaz. Ginekologia zerbitzura joateko emagina edo familia medikuaren bidez egin beharko duzu.

Aipatutako zerbitzuez gain urtean zehar hainbat tailer eskaintzen dira gai hauekin lotuta, interesa baduzu eskatu informazioa anbulatorioan!

Edozein ekarpen edo proposamen jarri kontaktuan gurekin:

Lekeitioko Anbulategia
Emaginagatik galdetu
946035860



Osakidetza



lekeitio
BARRUAN HAZI

OSAKIDETZAK
EMAKUMEOI
ZUZENDUTAKO ZERBITZUAK

Emakumeon beharrianen arabera, Osakidetzak osasun zerbitzu espezifikoak eskaintzen du. Orokorrean emaginak ematen du emakumeen osasunaren inguruko informazioa eta arreta.

Jarduera nagusiak osasun sexual eta erreproduktiboaren alorrekoak dira. Emakumearen edozein garairako egokituta daude, nerabezarotik hasita. Ondorengoak dira jarduerak:

